

IRAKURKETA-GIDA

Matilda

Roald Dahl

begiko

Matilda

Roald Dahl



LIBURUAREN AURKEZPENEA

Egilea

Roald Dahl Galesen jaio zen, 1916an, eta Oxforden hil, 1990ean. Oso eskola-bizitza zorrotza izan ostean, Afrikara joan zen, Shell petrolio-konpainiarekin lan egitera. Bigarren Mundu Gerran, Erresuma Batuko Aireko Armadan (*Royal Air Force*, RAF) sartu zen hegazkin-pilotu, baina hegazkin-istripu baten ondorioz, zerbitzua utzi zuen. Horrek aukera eman zion literatura-sorkuntzan aritzeko. Helduentzako beldurrezko, misteriozko eta fantasiazko eleberriak eta ipuinak idatzi zituen, baita zinema-gidoiak ere, eta batez ere, haurrentzako liburuak. Haurrentzako istorioen XX. mendeko kontalari handienetako bat dela esaten da. *Matilda* eta *Charlie eta txokolate-lantegia* dira Dahlen lan ezagunenetako batzuk, arrakasta handiz eraman direlako zinemara.

Irudigilea

Quentin Blake 1932an jaio zen, Sidcupen (Ingalaterra). Eskolan zegoenean hasi zen marrazten, eta hamazazpi urte baino ez zituenean, lehenbiziko aldiz haren marrazki batzuk argitaratu zituzten, *Punch* umorezko aldizkarian. Cambridgeko Unibertsitatean Filologia ikasketak egiten zituen bitartean, zenbait argitalpenetan irudiak egiten jarraitu zuen. 1960an argitaratu zuten haren lehen liburua. Harrezkero, haur eta helduentzako liburuak –batzuk berak idatziak– irudiztatzen aritu da.

Liburua

Matilda talentu handiko neskatoa da, eta liburuak eta ikastea maite ditu. Gurasoek ez dute estimu handitan, eta etengabe leporatzen diote ezjakina eta inozoa izatea. Irainekin aspertuta, mendeku hartzea erabakiko du, oso bihurrikeria jostagarriak eginez.

Eskolan, zuzendari beldurgarri bat, Trunchbull andrea, eta oso irakasle atsegin bat, Honey andereñoa, topatuko ditu. Azken horrekin ondo konponduko da hasieratik.

Matildak bere talentua garatzen jarraituko du, gaitasun sinestezinak eskuratzera ino. Beti apal eta bere buruarengan konfiantza galdu gabe, ahalmen horiek bere lagunei eta Honey andereñoari laguntzeko erabiliko ditu.

Zergatik irakurri liburu hau?

Familia-egoera zail batek ez du ez garrazten, ez kikiltzen eleberriko protagonista gaztea. Gurasoen eragina kaltegarria izan arren –saltzaile iruzurtia da aita eta bingojokalari konpultsiboa ama–, neskatoak aurre egiten die bere arazoei eta gainditzeari lortzen du, zorrozatasuna eta umore-sen handia erabiliz.

Eleberri hau irakurri ondoren, guztiok –heldu nahiz haur– pentsatzen dugu zoragarria litzatekeela Matildaren antzekoak izatea edo, gutxienez, haren lagun egitea.

Liburu honek erakusten digu jende guztiak behar duela maitasuna eta babesa sentitzea bere talentua garatzeko, talentu hori nolana hiko dela ere.

Liburuak gaitasunen garapenari egiten dion ekarpena

Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna

Ikstetxeko liburutegia eta liburutegi publikoa, era gidatuan, erabiltzen ikastea.

Irakurgaiei buruzko balioespen pertsonalak egitea, irakurketa-kritikoa garatuz.

Literatura gozamen-iturritzat hartzea, bai eta kultura eta hizkuntza aberasteko bidetzat ere.

Matematikarako gaitasuna

Biderketa-taulak berrikustea.

Buruzko kalkuluaren garrantzia hautematea.

Zientziarako gaitasuna

Uhandrea bezalako animalien ezaugarrien inguruko informazioa bilatzen jakitea eta ikastea.

Izaki bizidunak errespetatzeko eta zaintzeko ohiturak sustatzea.

Gizarterako eta herritartartasunerako gaitasuna

Emakumeak gure gizartean duen irudia: estereotipoak eta aurreiritziak. Genero-indarkeria.

Benetako egoerak aztertzea eta kritikoki ebaluatzea.

Indarkeria eta genero-diskriminazioko egoerak esanbidez gaitzestea.

Izaten ikasteko gaitasuna

Autokontzeptuan eta autoestimuan sakontzea, eta bakoitza bere buruari buruz era positiboan eta eraikitzailean hitz egiteko gai izatea.

Elkarbizitzarako gaitasuna

Amankomuneko helburu bat lortzeko lankidetzan aritzea, pertsonen eta iritzien aniztasunak dakarren aberastasuna aitortuz.

Indarkeriazko eta giza eskubideen aurkako jokabideak esanbidez gaitzestea.

Balioetan hezte

Matildaren istorioari esker, inguruak pertsona bakoitzaren gaitasunak guztiz garratzeko duen garrantzian sakondu dezakegu. Halaber, Matilda erantzukizun handiko neskatila da eta irudimena etengabe erabiltzen du sormen-ahalmena garatuz.

Horrekin lotuta, beste gai batzuk proposatzen ditugu, hala nola autoestimua, garapen pertsonala, besteen berezitasunekiko errespetua eta maitasun-beharra.

JARDUEREN PROPOSAMENA

Irakurri eta ulertu

Nor da Matilda? · 1. jarduera

Irakurtzen hasi aurretik, oso baliagarria izango da pertsonaia nagusiaren ezaugarrietan zertxobait sakontzea. Hobeto ezagutzeko, haren ezaugarrietako batzuk eleberritik hartu eta aurkez ditzakegu: urte eta erdi zuenean, oso ondo hitz egiten zuen eta helduek bezalako hitzak erabiltzen zituen. Hiru urte zituela ikasi zuen irakurtzen, bere kabuz, egunkariak eta aldizkariak erabiliz. Lau urterekin, jarraian eta akatsik gabe irakurtzen zuen, eta liburu bat zen oparirik onena harentzat... Paragrafo batzuk irakur daitezke:

«Hain argia zen eta hain azkar ikasten zuen, ezen haren trebetasunak agerikoa izan behar baitzukeen guraso tentel gehientzat ere». (12.-13. or.).

«Matilda astean behin bakarrik joaten zen liburutegira, liburu berriak hartzera eta irakurritakoak itzultzera [...]. Liburuek mundu berrietara eramaten zuten, eta bizitza kilikagarriak bizi zituzten pertsona izugarriak erakusten zizkieten. Antzinako belaontzietan ibili zen Joseph Conradekin. Afrikara joan zen Ernest Hemingwayrekin, eta Indiara Rudyard Kiplingekin. Mundu osoan barrena bidaiatu zuen, bere logela txikian eserita». (24. or.).

Matilda oso adimentsua da · 2. jarduera

Matilda neskato aparta da. Baina, zer esan nahi du horrek? Pertsonaiaren ezaugarri horretatik abiatuta, alderdi intuitibo eta konplexu bat landu dezakegu: adimena.

Matildaren adimenari buruz proposatzen diren galderei erantzuteko eskatuko diegu gure ikasleei, eta adimena nola agertzen den esateko ere bai. Jarduera horren bidez, norberaren kontzeptua landu ahal izango dugu, alde batetik; eta pertsona bakoitzaren adimena nahiz beste gaitasun batzuk adierazteko moduak, bestetik.

Bai ala ez? · 3. jarduera

Ikasleen ulermena egiaztatzeko eta haien memoria garatzeko, test bat proposatuko diegu: argumentuari buruzko adierazpenak irakurtzean eta bai edo ez erantzutean datza. Jardueran sakontzeko, taldeka presta dezakete testa. Talde bakoitzak zenbait adierazpen prestatuko ditu, eta gainerako taldeek egiazkoak ala faltsuak diren esan beharko dute. Gehien asmatzen duen taldeak irabaziko du.

Zintzoa, oso zintzoa; gaiztoa, oso gaiztoa · 4. jarduera

Matilda eskolara iristen denean, bi pertsonaia oso garrantzitsurekin topo egiten du: bere andereñoa eta eskolako zuzendaria. Pertsonaia horiek oso desberdinak dira. Bien deskribapenak aurkitzeko eskatuko diegu ikasleei. Honey andereñoarena 81. orrialdean topatuko dute; Trunchbull zuzendaiarena, berriz, 81.-82. eta 102.-103. orrialdeetan.

Eleberrian nortasunaren nahiz itxura fisikoaren deskribapenak aurkituko dituzte. Horrek aukera emango digu hausnartzeko zergatik dirudien itxura fisikoa eta nortasuna eskutik doazela, eta ea hori horrela izaten den errealitatean.

Garrantzitsua da azpimarratzea fikziozko pertsonaiak direla, eta idazleak haien ezaugarriak areagotu egin dituela; hau da, karikatura bihurtu ditu, Honey andereñoa oso zintzoa eta gozoa izan dadin, eta zuzendaria, aldiz, oso gaiztoa eta desatsegina (hori nabarmentzeko Blaken irudiak ere erabil daitezke). Horrek aurreiritzien arriskuei buruz hitz egiteko balioko digu, bai eta itxuran oinarrituta besteak ez epaitzearen garrantziaz ere.

Bihurrikeriak iruditan · 5. jarduera

Matildak bihurrikeria asko asmatzen ditu bere familiaz mendekatzeko: aitaren ileko tonikoaren lekuan amaren tindu hori platinoa jartzea; oso kola itsasgarria (superkola) jartzea aitaren kapela barruan; alegiazko mamuekin aita beldurtzea.

Baina Matilda ez da mendeku hartzen duen bakarra; zuzendariak ere sufritzen ditu Lavenderren deabrukeriak, ikaskideak tratatzeko duen modua dela eta.

Eskatu ikasleei binetetan agertzen diren bihurrikeriak zein diren esateko, eta, horrekin batera, komiki-banda bakoitza osatzeko, segidan falta dena marraztuz.

Matildari buruzko hitz gurutzatuak · 6. jarduera

Jarduera ludiko bat proposatuko diegu ikasleei, eta eleberriko xehetasun batzuk gogoratzeko (hala nola pertsonaien abizenak edo Matildaren zenbait bihurrikeria) asmatu beharko dute erantzuna.

Ikertu

Liburuak testuan

Eleberrian, liburu eta idazle ugari aipatzen dira. Gure ikasleei galdetuko diegu ea entzun al duten idazle horietakoren bati buruz hitz egiten edo irakurri al duten liburuetakoren bat. Horrez gain, familiakoen eta lagunen artean galdetzeko ere eskatuko diegu.

Rudyard Kipling, 1907ko Nobel sariaren irabazlea, nabarmendu dezakegu; besteak beste, obra hauen egilea da: *Oihaneko liburua*, *Kim* eta *If* poema ezaguna.

Kim eleberriko istorioak eta *Matilda* liburukoak badute antza: pertsona batzuek gaitasun handiko mutil bat aurkituko eta babestuko dute, bai eta dituen trebeziak gartzan lagundu ere. Mutikoak, bere aldetik, beste laguntzeko erabiliko ditu trebeziok.

Mowgli ere (*Oihaneko liburua* eleberriko protagonista) baditu ezaugarri bereziak; esaterako, hark bakarrik erabiltzen du «lore gorria» (sua). Ikasgelan, idazlea ez ezik, haren liburuak ere sakon azter ditzakegu, eta Kiplingen liburuetako protagonistak (apartak haiek ere) Matildarekin alderatu.

Telebista luzaroegi ikusten al dugu?

Jarduera honetan, gure ikasleei galdetuko diegu zenbat ikusten den telebista haien etxeetan. Ondoren, eskatuko diegu ikertzeko zenbat kontsumitzen den telebista egun bakoitzeko eta zenbat irakurtzen den batez beste Euskal Herrian.

Datu horiek jaso eta gero, bateratze-lana egin dezakegu, zer jardueratan aritzen garen luzaroagoan hausnartzeko. Horrela, kultura eskuratzeko tresnak aztertuko ditugu, bai eta haiek nola erabiltzen diren ere.

Kontuz ibili behar da telebista luzaroan ikusten den familiei buruz atera daitezkeen ondorioekin. Interesgarria litzateke ikasleek bereganatzea biak izan daitezkeela kultura eta informazioa eskuratzeko baliabide egokiak, ematen zaien erabileraren arabera. Illo horretatik, sakondu egin daiteke jardueran, ikasleei eskatuz kultura eta informazioa eskuratzeko onak edo txarrak iruditzen zaizkien baliabide idatzien adibideak proposatzeko (eleberriak, egunkariak, bihotzeko prentsa, etab.); gero, gauza bera egin daiteke telebistako programekin (albistegiak, dokumentalak, zinea, teleerrealitatea, etab.).

Beste hizkuntza batzuk, beste irakurketa batzuk: *Matilda*

Kontakizun honetan oinarrituta, Danny DeVitok zuzendutako film dibertigarri bat egin da, Nicholas Kazanek landutako gidoia erabiliz. Filmaren soinu-banda, berriz, David Newmanek konposatu zuen.

Ikasleekin batera ikus dezakegu filma: egokitzapen oso leiala dela egiaztatuko dugu, baina badira alde garrantzitsuak ere liburuaren eta filmaren artean.

Lehen aldea eszena guztiz berri bat sartzea da: Matilda eta Honey andereñoa zuzendariaren etxean sartzen direnean, Trunchbull andrea etxean ez dagoela. Besteak ez dira hain nabarmenak. Hasteko, Honey andereñoa erakusteko modua desberdina da: bere etxea ez da liburuan, 225. orrialdetik aurrera, deskribatzen den bezain soil; aitaren etxera itzultzeraz eta bertan sartzera ausartzen da; eta zuzendari izaten bukatzen du. Gainera, azken eszenan, Matildak bere gurasoei adopzio-

paperak aurkezten dizkie, Honey andereñoarekin bizitzeko. Gurasoek eleberrian baino askoz gehiago pentsatzen dute horri buruz: hainbeste pentsatzen dutenez, ematen du azkenean erabakia Matildaren mesederako hartzen dutela.

Aldaketak ez dira oso handiak, baina haien zergatiaz hitz egiteko aukera eman diezagukete, bai eta aldaketa horiek pertsonaien nortasunean duten eraginaz hitz egiteko ere. Filmean, Wormwood familiak humanoagoa dirudi; Honey andereñoaren nortasuna, berriz, indartsuagoa da, eta haren etxea eta itxura fisikoa ez dira inolaz ere liburukoak bezain xumeak.

Eztabaidatu

Errebeldia

Eleberriko pertsonaia askok beste batzuei aurka egiten diete uneren batean, oso era desberdinetan. Hauek dira, besteak beste, adibide batzuk: Matildaren mende-kuak, Hortensiaren bihurrikeriak, ikasleak Bruce Bogtrotter animatzea, Lavenderren uhandrearen txantxa, Nigel Hicks-ek Trunchbull zuzendariari aurre egitea (176. eta 177. or.) eta Honey andereñoa etxetik joatea (252. eta 253. or.).

Eleberrian agertzen diren errebeldia mota desberdinei buruz hitz egingo dugu eta egokiak ala desagokiak iruditzen zaizkigun eztabaidatuko dugu. Horren ondoren, eztabaida sakonagoa has dezakegu errebeldiari eta hura gerta daitekeen egoerei buruz: manifestazioak, grebak, erreboltak, etab.

Zigorrak

Trunchbull zuzendariak neurritz kanpoko zigorrak ezartzen dizkie bere ikasleei. Esate baterako, Eric Ink-i hainbesteko indarrez tira egiten dio belarrietatik, ezen handitu egiten baitizkio (190. or.).

Gure ikasleekin hitz egingo dugu, zigorra merezi duten jokabideak dauden ala ez eztabaidatzeko, eta zer zigor izaten diren ohikoenak aipatzeko. Ikasleei beren iritzia eskatuko diegu: zigorrek ezertarako balio duten edo alferrikakoak diren arrazoitu beharko dute. Liburuan, zigorrak puztea erabiltzen da kontatzeko baliabide gisa, baina zuzendariaren zigorrek zera eztabaidatzeko balio diezagukete: ea zigorraren beldur izateak nahi den ondorioaren aurkakoa eragin dezakeen ala ez.

Gezurak, saltzeko

Matildaren aita ez da oso pertsonaia fidagarria, eta ez soilik alaba tratatzeko moduagatik: ez du inolako lotsarik era askotako iruzurrak egiteko, bezeroei ahalik eta diru gehien ateratzearren.

Pertsonaiaren ezaugarri hori balia dezakegu gure ikasleekin publizitatearen gaia jorratzeko, eta ikasleen artean pentsaera kritikoa garatzen nahiz kontsumo arduratsuko jokabideak bultzatzen ahalegindu.

Horretarako, telebistan, aldizkarietan edo publizitate-paneletan ikusitako iragarki batzuk aipatzeko proposatuko diegu, eta horietatik oso egiazkoak ez direnak aukeratzeko. Asmoa iragarkiok biltzea da, eta, ondoren, gelan azaltzea eta zergatik uste duten iruzurtiak direla argudiatzea.

Sortu

Liburu jostagarria · 7. jarduera

Beste denbora-pasa bat ikasleak entretenitzeko eta protagonistari asko gustatu zaion liburu bat (*Lorategi sekretua*) gogorarazteko.

Denbora-pasa erraza da: hizki bakoitza dagokion laukian kokatzean datza. Jarraian, ikasleei gogoraraz diezaiekegu eleberriko zein unetan agertzen den liburu hau, eta zerekin lotuta. Azkenik, gogokoen duten liburuarekin antzeko denbora-pasa bat egiteko eskatuko diegu.

Gurasoentzako aholkua · 8. jarduera

Argi dago gurasoek Matilda tratatzeko duten modua beldurgarria dela. Oso neska berezia da, eta gurasoek ez dute haren ezaugarriei dagokien bezala jokatzeko.

Inguruaren garrantziari buruz gogoeta egiteko, Matildaren gurasoentzako zenbait aholku lantzeko eskatuko diegu ikasleei. Aholku horien bidez, guraso hobeak nola izan eta alabari hobeto nola lagundu adierazi behar diete haren gurasoei.

IZENA:MAILA:

MATILDA

Roald Dahl

1. Nor da Matilda?

Irakurri, eta adierazi zer esaldik deskribatzen duten Matilda.

	Bai	Ez
Lau urte ditu eta oso adimentsua da.		
Nahiago du telebista ikusi liburu bat irakurri baino.		
Asko kostatu zitzaion hitz egiten ikastea.		
Ikus-entzunezko metodo bat erabiliz ikasi zuen irakurtzen.		
Helduentzako liburuak gustatzen zaizkio.		
Leku askotara bidaiatu du irudimenarekin.		
Gehien gustatzen zaiona panpinak dira.		

2. Matilda oso adimentsua da

Matilda izugarri adimentsua da. Egin gogoeta neskatoaren ezaugarri horri buruz eta erantzun.

- Zer pertsona konturatzen da lehenbizi Matilda oso adimentsua dela? Nola konturatzen da horretaz?

.....
.....

- Zer beste gauzatan antzematen da Matildaren adimen argia?

.....
.....

- Zer iritzi dute bere ikaskideek haren adimenari buruz?

.....

- Neskatilak telekinesia garatzen du. Zer esan nahi du horrek? Zure ustez, Matildaren adimenarekin al dago lotuta?

.....
.....

- Zergatik uzten dio botere hori izateari?

.....

IZENA:MAILA:

MATILDA

Roald Dahl

3. Bai ala ez?

Erakutsi nolako oroimena duzun, aurkezten dizkizugun jardueri zuzen erantzunez. Ondoren, taldeka, esaldi gehiago pentsa ditzakezue, zuen ikaskideak, liburukoa kontuan izanda, egiazkoak ala faltsuak diren asmatzen ahalegindu daitezten.

	Bai	Ez
Matilda alaba bakarra da.		
Matildaren aita medikua da.		
Michael da Matildaren neba.		
Matildak guraso zintzoak eta maitekorrak nahi lituzke.		
Honey andereñoa eskolako zuzendaria da.		
Trunchbull andrea atsegina eta ondo hezitakoa da.		
Nigelen aita medikua da.		
Matildak astebetean irakurri zuen <i>Itxaropen handiak</i> .		
Matildari zail egiten zaio beste haurren lagun egitea.		
Matilda oso ziur zegoen Amandak bere mototsak moztuko zituela.		
Honey andereñoak beti hartzen du tea azukre askorekin.		

4. Zintzoa, oso zintzoa; gaiztoa, oso gaiztoa

Idatzi behean aipatzen diren eleberriko bi pertsonaien deskribapena (aipatu ezaugarri fisikoak eta nortasunari buruzkoak). Erabili testuko informazioa, irudiak eta bi pertsonaia horiei buruz, istorioa irakurri ahala, zu imajinatzen joan zarena.

Honey andereñoa

.....

.....

.....

Trunchbull zuzendaria

.....

.....

.....



IZENA:MAILA:

MATILDA

Roald Dahl

5. Bihurrikeriak iruditan

Begiratu segida bakoitzeko binetei eta marraztu falta dena. Ondoren, azaldu zer bihurrikeria deskribatzen den komiki-banda bakoitzean.



IZENA:MAILA:

MATILDA

Roald Dahl

6. Matildari buruzko hitz gurutzatuak


Prest al zaude? Ba, hartu bolaluma, irakurri argibideak eta osatu hitz gurutzatuak.

BERTIKALAK

1. Objektuak kausa fisikorik gabe lekualdatzeko boterea, buruaren ahalmena erabiliz.
2. Ez zen mamu bat, oso hegazti berritsua baizik.
3. Matildak objektu horren barnea kolaz bete zuen.
4. Matildari asko gustatzen zaio haiek irakurtzea.
5. *Honey* hitzak euskaraz duen esanahia.

HORIZONTALAK

1. Matildaren andereñoaren abizena.
2. Matildaren aitaren lanbidea.
3. Nigelen abizena.
4. Twist du abizena, eta Dickensen eleberri bat da.
5. Lavenderrek zuzendariaren edalontzian sartutako animalia.



7. Liburu jostagarria

Matildaren liburu gustukoenetako bat da. Jarri hizki bakoitza bere lekuan eta liburuaren izenburua jakingo duzu. Asmatzen duzunean, egin antzeko jolas bat gustukoen duzun liburuaren izenburuarekin. Ea, bada, zure gelako ikaskideek asma dezaketen!

A L O E S T T U
R G K I A E R E

--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

IZENA:MAILA:


MATILDA

Roald Dahl

8. Gurasoentzako aholkuak

Matildaren gurasoak ez dira oso eredugarriak, baina ez dirudi horretaz konturatzzen direnik. Lagundu iezaiezu (eskatu ez duten arren). Idatzi taulako alde batean zure ustez hobetu beharko lituzketen jokabideak, eta bestean, hobetzeko emango zenizkiekeen aholkuak. Begiratu adibideari.

Jokabideak	Aholkuak
Urte eta erdi zuenean oso ondo hitz egiten zuen eta heldu gehienek erabiltzen dituzten hitzak erabiltzen zituen. Gurasoek, goretsi beharrean, <i>hitzontzi</i> deitzen zioten, eta modu txarrean esaten zioten neskato txikiak ikusteko direla eta ez entzuteko (13. or.).	Gurasoek Matilda anima zezaketen, harekin hitz eginez, hitz gehiago irakatsiz eta esan nahi zuena garrantzitsua zela sentiaraziz.



IZENA:MAILA:

MATILDA

Roald Dahl

Irakurmen-testa

Beheko galdera bakoitzean, aukeratu egokia iruditzen zaizun erantzuna, eleberria ondo ulertu duzun ikusteko.

1. Zenbat neba edo ahizpa ditu Matildak?

- ☐ a Neba bat eta ahizpa bat.
- ☐ b Neba bat.
- ☐ c Etxean bizi den neba bat eta atzerrian bizi den beste bat.

2. Zein izan zen Matildak irakurri zuen lehen liburua?

- ☐ a *Lorategi sekretua.*
- ☐ b *Sukaldaritza erraza.*
- ☐ c *Oliver Twist.*

3. Non igarotzen zituen arratsaldeak Matildaren amak?

- ☐ a Liburutegian.
- ☐ b Ile-apaindegian.
- ☐ c Bingoan.

4. Zergatik egin zuen Wormwood jaunak interesantearena bere lanean?

- ☐ a Buruan itsatsita zuen kapela ezin kendu zuela disimulatzeko.
- ☐ b Horrela auto gehiago salduko zituela iruditzen zitzaiolako.
- ☐ c Alaba nola zigortu pentsatzen ari zelako.

5. Zenbat urte zituen Matildak lehen aldiz eskolara joan zenean?

- ☐ a Hiru urte.
- ☐ b Bost urte eta erdi.
- ☐ c Bost urte.

6. Zer ikasgelatara eraman nahi zuen Matilda Honey andereñoak?

- ☐ a 8 urteko haurren ikasgelara.
- ☐ b 10 urteko haurren ikasgelara.
- ☐ c 11 urteko haurren ikasgelara.

IZENA:MAILA:

MATILDA

Roald Dahl

7. Zer animalia sartu zuen Lavenderrek Trunchbull andrearen edalontzian?

- ☐ a Uhandrea.
- ☐ b Krokodiloa.
- ☐ c Armiarma.

8. Nola sentitzen zuen Matildak bere telekinesia?

- ☐ a Arrantzako kanabera bat balitz bezala.
- ☐ b Beso oso txikiak eta ikusezinak balira bezala.
- ☐ c Laguntzen zion indar goren bat balitz bezala.

9. Zergatik kostatu zitzaion hainbeste Honey andereñoari etxetik irtetea?

- ☐ a Oso beldurtuta zegoelako.
- ☐ b Lanik aurkitzen ez zuelako.
- ☐ c Joan nahi zuen etxea konpondu behar zuelako.

10. Zein da Trunchbull zuzendariaren bataioko izena?

- ☐ a Magna.
- ☐ b Jennifer.
- ☐ c Agatha.

Erantzunak

MATILDA

Roald Dahl

1. Nor da Matilda?

	Bai	Ez
Lau urte ditu eta oso adimentsua da.	X	
Nahiago du telebista ikusi irakurri baino.		X
Asko kostatu zitzaion hitz egiten ikastea.		X
Ikus-entzunezko metodo bat erabiliz ikasi zuen irakurtzen.		X
Helduentzako liburuak gustatzen zaizkio.		X
Leku askotara bidaiatu du irudimenarekin.	X	
Gehien gustatzen zaiona panpinak dira.		X

2. Matilda oso adimentsua da

Liburuzaia, Phelps andrea. Matildak, soilik lau urterekin, helduentzako liburuak irakurtzen ditu liburutegian.

Matilda gai da buruzko kalkuluak eta biderketa konplexuak egiteko, Dylan Thomas idazleen poemak buruz errezipitatzeko...

Ikaskideak txundituta daude, hasieran ez dute oso ondo ulertzen zergatik Matildak eragiketa zailak egin ahal dituen eta haiek ez, baina gero Matildaren adimen bereziak onartzen dituzte eta lankidetzan aritzeko ezin hobeak direla deskubritzen dute.

Pentsamenduaz baliatuta objektuak mugitzea. E.L.

Matildaren burmuinak ez du ahaleginik egiten eta energia askatzeko ahalmen hori garratzen du. Baina gero, ikasketa-maila altuago

batean egoterakoan, bere burmuinak energia guztia xahutzen du ikasketetan eta dagoeneko ez du telekinesiaren beharrik.

3. Bai ala ez?

	Bai	Ez
Matilda alaba bakarra da.		X
Matildaren aita medikua da.		X
Michael da Matildaren neba.	X	
Matildak guraso zintzoak eta maitekorrak nahi lituzke.	X	
Honey andereñoa eskolako zuzendaria da.		X
Trunchbull andrea atsegina eta ondo hezitakoa da.		X
Nigelen aita medikua da.	X	
Matildak astebetean irakurri zuen <i>Itxaropen handiak</i> .	X	
Matildari zail egiten zaio beste haurren lagun egitea.		X
Matilda oso ziur zegoen Amandak bere mototsak moztuko zituela.	X	
Honey andereñoak beti hartzen du tea azukre askorekin.		X

4. Zintzoa, oso zintzoa; gaiztoa, oso gaiztoa

Itxura: obalo formako aurpegi zurbila, begi urdinak, ile gaiztanka, argal-argala, ederra...

Izaera: eztea, lasaia, atsegina, zintzoa, gozoa...

Itxura: gorputz gihartsua, zezen-lepoa, sorbaldak zabalak, beso lodiak, kokotsa irtena...

Izaera: desatsegina, gaiztoa, ikaragarria...

Erantzunak

MATILDA

Roald Dahl

5. Bihurrikeriak iruditan

1. Matildak aitaren ileko tonikoaren lekuan amaren tindu hori platinoa jar-tzen du.
2. Amandaren amak txirikordak egin dizkio Amandari eta Trunchbullek ez ditujasaten. Ondorioz, zuzendariak Amandaren txirikordak heldu eta mailu-jaurtiketa izango balitz bezala Amanda leihotik botatzen du.
3. Ikasleek mendekua hartzeko uhandrebat sartzen dute Trunchbullen ur-pitxerrear. Trunchbullek ura botatzen du edalontzi batera eta uhandrea edalontzian geratzen da igerian. Azkenik, Matildak bere ahalmen bereziekin edalontzia iraultzen du eta uhandrea Trunchbullen gainera salto egiten du.

7. Liburu jostagarria

Lorategi sekretua

Irakurmen-testa

1 b; 2 b; 3 c; 4 a; 5 b; 6 c; 7 a; 8 b; 9 a; 10 c

6. Matildari buruzko hitz gurutzatuak

1	T	E	L	E	K	I	1 H O N E Y	3	2
							E 4	K	L
							2 S A L T Z A I L E A	5 O	O
							I I	P	R
							A B	E	Z
							U	L 3 H I C K S	T
4 O L I V E R							A	A	
							U		
5 U H A N D R E A							K		